



Ke saltzaileak



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Ekintzaile indibiduala protagonista duen finantza erakunde baten azken iragarkia: *Amesten duzun proiektua egia bihurtu daiteke*. Diru laguntza baten bitartez, originala den ideia, proiektua, gorpuztu eta enpresa batean eraldatuko da, norberaren esfortzuaren bitartez. Administrazio publikoek urteak daramatzate ekintzailletza mota hori sustatzen, 2008ko Atzeraldi Handitik ona indar handia hartu duenak. Gazte langabezia tasa handia; kapitalaren alde erregulatuta dagoen lan merkatua; bizitza kostu hazkorrak; bizitza duin bat eskuratzeko enpleguak gero eta murriztagoak: garai hauetan; instituzio publikoen hautua argia da.

Pentsamendu positiboa oinarria duen bizitza filosofiak gero eta marketin indartsuagoa dauka bere alde. Adorea baldin baduzu, zure helburuak lortuko dituzu. Buruan duzun ideia hori jarraitu, kementsu. Merezi duzuna lortuko baituzu. Pentsamendu positiboa bultzatzen den ekintzailletza mota horrekin oso ondo lotzen da. Bestetik, meritokrazia daukagu. Merituen arabera lanpostua eta arrakasta lortuko dugu. Hoberenek hoberena lortuko dute. Gehiago ikasi, gehiago lan egin. Esfortzuaren bitartez, lehiatu eta merezi duzuna lortuko duzu.

Nor egon daiteke meritokraziaren aurka? Merituak egin dituztenak lanpostu hoberenekin ordainduak baitira. Nor egon daiteke ekintzailletzaren aurka, norbere ametsak egia bihurtzearen

Meritokraziak
sustatzen duen
arrakastarekiko
jarrerak irabazleen
artean harrokeria
sustatzen du,
galtzaileen artean,
aldiz, umiliazioa

kontra? Nor egon daiteke esfortzu indibidualen oinarritutako pentsamendu sistema baten aurka?

Gure gizartean gero eta indartsuagoak diren ideia horiek tranpa handia ezkututzen dute. Ekintzailletza indibidual arrakastatsuen atzean –“garaje-ekintzaillearen” irudi erromantikoaren eredu–, nor dagoen aztertu beharra dago. Sarritan baliabide ekonomikoak dituzten familiako kideak ditugu; beste batzuetan konexio politiko eta ekonomikoak dituztenak. Maiz, ekintzailletza indibidualaren proiektuak langile familiako kide bat zorpetuko du, baina ez ditu bere ametsak egia bihurtuko, zorpetzearen ametsgaiztoa iritsiko da. Dirua erakartzeko dirua behar delako. Bidean, Administrazio Publikoek kapitalismo mota berrien aldeko baliabide

esleipena egiten dute, euren funtzio soziala eta lan merkatuko alde ahularen alde egitea alboratuz. Michael J. Sandel filosofoak meritokraziaren kontzeptua sakonki landu du, azpimarratuz ez dela aukera berdintasunik existitzen, gaur egungo gizartean utopia bat dena. Filosofoaren esanetan, meritokraziak sustatzen duen arrakastarekiko jarrerak irabazleen artean harrokeria sustatzen du; galtzaileen artean, aldiz, umiliazioa.

Ez gara era isolatuan bizi, ez gara lehian dauden norbanakoak, klase sozialaren arabera muga batzuk pairatuko ditugu, gizartea arautzen duten beste ezaugarrien artean. Bi pertsonak ikasketak berak eta esfortzu handia egin dezakete, baina horietako batek enpresa munduan murgildutako familia badu, errazago lortuko du lanpostu interesgarriago bat. Ekonomia feministak zaintzen garrantzia eta genero arrakalak ulertzeko erremintak eskaini dizkigu, meritokraziaren proposamena sakonki astinduz; Kropotkinen elkar laguntzak zaharkituta utzi du saldu nahi duten ekintzaile indibidualaren irudia.

Boteretsuenek sustatzen dituzten ideiek, sarritan sekta baten moduan funtzionatzen dute euren klase hegemonia zabaltzeko; kudeatzaile politikoek langileen artean ideia horiek hedatzea dute helburu, klase gatazka, beste borroka batzuekin batera, ikusgaitz egiteko. Ke saltzaileak salatu behar ditugu, ezkutatu nahi dutena azalaraziz. ●